

Konpartsek mozorrotuko dituzte kaleak gaur, Inauteri egunean

■ Eguediko 12:00etan atera eta herri barruan ibiliko dira ■ Arratsaldean kale antzerkia eta Musika Eskolako dultzainero eta trikitalariak.

URTERO bezala konpartsak izango dira gaur eguediko protagonista. Aurten ere, ikastetxeetako konpartsak izango dira gehiena. Lau aterako dira denera eta hiru ikastetxeetakoak: Elizatxo, Inmaculada eta Langilekoak. Horiekin batera, *Ttarla* dantza taldeko konpartsa aterako da. Guztiek kaxkoan barrena desfilatuko dute, bakoitzak bere funtzio partikularra eginez.

Gaur, hala ere, azkeneko 12 urteotan atera izan den konpartsa faltako da: *Beti Al-perrak* konpartsa.

Egun osoko programa

Konpartsak eguediko 12:00-etan aterako badira ere, 11:30-etan *Betikoak* txaranga ibiliko da giroa jartzen. Arratsaldeko 18:00etan kale antzerkia izango da: Hortz Muga taldeak *Sportzik* lana antzeztuko du, eta 19:30etan Musika Eskolakoek trikita eta dultzaina joko dituzte.

Bestalde, bihar ere egun osoko festa izango da eta inauteririk asteartean bukatuko di-



Axeri dantzak berezkoa du jendearen laguntza bizkaraldean maxkuri-igurtzi goxo bat hartzeko.

ra *Sardina* malko artean enteratuta.

Gaztetxoak Axeri dantzan

Atzo goizean Axeri dantza izan zen eta jendea tamaina-tamainan izan zen. Giroa, berriz, emozioz betea. Jende gehiena gaztetxoak zen eta sokakoak beren maxkuriekin portalen batetik ateratzen ziren bakoitzean sekulako emozioarekin hartzen zituzten. Axeri dantza mixtoa izan zen eta txistulariak bakeroz mozorrotuta atera ziren. Gaur ez, baina, bihar berriz ere izango da Axeri dantza, goizeko 10:00etan.

Jendea mozorrotuta

Hernaniko inauteririk ez dute Tolosakoen indarririk. Hala ere, atzo jende dezente zebilen mozorrotuta, nahiz eta gehienak ume eta gaztetxoak izan. Arratsaldean, txikienak Plaza Berrian ibili ziren dantzan eta heldu-xeagoak Tilosetan, iluntzean. Sandiusterrin ere dantzaldia izan zuten *Atsegin* taldearekin. Hernanin, hala ere, jende gehiena gauean mozorrotzen da. □



Plaza Berrian umeak aerobice eta dantzan ibili ziren atzo arratsaldean.



Sandiusterrin baileia izan zen eta mozorrotutako gaztetxoek bisita ere jaso zuten.

SANTA BARBARA
PEUGEOT

PEUGEOT
Tailerrak: Larramendi 15 - Exp: Arantzazu 15 - Tel. 943 551 139 - 943 551 979

Auto eta furgoneta zaharrak, 2. eskukoak aldatzen ditugu

Peugeot 306	XSD	10.066,95 euro
Peugeot 106 - 5 ate	Diesela	4.056,83 euro
Peugeot 205 - 5 ate	1.4	3.485,87 euro
Ford Scort - 5 ate	16 balbula-gorria	3.305,57 euro
Citroen AX - 5 ate	Diesela	2.343,95 euro
Seat Ibiza - 3 ate	Diesela	2.253,80 euro
VW Polo G.T.	1.3	1.803,04 euro
Seat Malaga 4p.	1.5	1.682,83 euro
Ford Escort	Diesela	1.652,78 euro
Peugeot 309	1.6	1.141,92 euro
Peugeot 205 5p.	Gasolina	1.021,72 euro

JOMERI
EDARITEGI A

Kale Nagusia, 7
55 00 32
HERNANI

Ibai mendi Kirolak
Nafar kalea 23
Tel: 943 333724
HERNANI

Ibai mendi Kirolak
Nagusia 10
Tel: 943 590372
ANDOAIN

Merkealdietan prezio bereziak:

- GORE - TEX BOTAK 9.990 pta
- XIRA INPERMEABLE TRANSPIRABLEA 14.990 ptatik
- COLUMBIA FORROAK 9.990 ptatik
- COLUMBIA ALKANDORA 3.500 pta (-%50)
- MENDI eta ESKIATZEKO GALTZAK (-%20)
- ZAKU eta MOTXILA ESKAINTZA.

Marka hauek aurkituko dituzu gure dendan:
TRANGO, GRIFBONE, EIDER, SALOMON, BESTARO, TUKLAND, LINE 7, ...

■ FUTBOLA- Gorengo Liga



Hondarribitarrak gogor saiatu ziren hernaniarren portieran, eta susto pare bat eman ere bai.

Hernanik 3-2 irabazi zion Hondarribiari, behar baino gehiago sufrituta

■ 2-0 eta 3-1 irabazten joan ondoren, azkenean sufritu egin zuten etxeok.

LANA gogotik eginda lortu zituen hiru puntuak Hernanik. Lehen zatia 1-0 bukatu zen. Bigarrena hasi bezain pronto, zuriberdeek 2-0 jarri eta parti-

dua erabaki zutela zirudien; baina, ezta gutxiago ere. Berehala, 2-1ekoa sartu zuen Hondarribiak. Handik laster, 3-1: berriro ere gutxi iraungo zuen

lasaitasuna. Hondarribiak azken ordulaurdenean 3-2koa sartu eta presioa jarri zion Hernaniri. Hauek ondo defenditu, eta 3 puntuak etxerako. □

■ ERRUGBIA

Jubenilak Euskadiko txapeldun, hirugarren urtez jarraian

■ Seniorrek, berriz, ezin Ordiziaren nagusitasunaren aurrean: 7-54 galdu zuten.



Jubeniletako taldea, Euskadiko txapelduna, Landaren.

EGUN gazi-goza izan zen atzokoa Hernaniko errugbiarentzat. Goza, jubilentzat. Mungiarri 31-0 irabazi eta Euskadiko txapeldun dira, nahiz Liga bukatzeko partidu pare bat gelditu. Hirugarren urtea da jarraian Hernani Euskadiko txapeldun gelditzen dela jubel mailan. Orain Espainiako

txapelketa jokatu dute.

Seniorrek, gazia

Lehen taldeak, etsai gogorra zuten atzokoan, Ordizia. Goierriarrak erraz nagusitu ziren, 7-54. Partiduak hasiera orekua izan zuen, baina, minutuak aurrera joan ahala etxeok etsi egin zuten. □

■ PELOTA

Esnal-Elolak 22-19 galdu

Esnal eta Elolak galdu egin zuten ostiralean eta Binakako txapelketatik kanpora gelditu dira. Garzia-Gabarrik partidu serioa egin zuten. Gabarri atzelariak erabaki zuen partidua. Atzean berak dominatu zuen eta ez zion Esnali ia partiduan sartzen ere utzi. Esnalek buruz buru izango du hurrengo txapelketa, baina, hori hemendik hilabete ingurura izango da. □



Iñaki Esnal jokatzen.

Diputazioak 1.000 izoki bota ditu Urumean

■ 14 zentimetro inguruak dira ■ Poliki-poliki ari da Urumean izokia ugaritzen.

DIPUTAZIOAK urtero botatzen ditu izokiak (salmoiak) urte sasoi honetan. Aurten ere bota ditu Urumea, Oria eta beste hainbat ibaitan, gurean galtzorian dagoen izokia berreskuratzeko. Izoki koskorak askatu dituzte 14 bat zentimetrokoak.

Urte betera bueltan

Izokiak orain ibaitik itsasora joango dira. Joera jaio diren erriora bueltatzeko du izokiak, eta hauek koskortuta bota badituzte ere saiatuko dira arraultzak jartzera Urumea bueltatzen. Iñigo Mendiola Diputazio-ko arduradunak esan digunez 1.000tik hiru bueltatzen dira. Markatuta dauzkatalako dakite hori. Hala ere, errioren bertan arraultzetatik jaiotzen direnetatik zenbat bueltatzen den ezin da jakin.



Izokiak Urumea bota dituzte (Argazkia: Josu Aranberri).

60 izoki tranpan

Ereñotzu parean dago *salmonea* Hernanin. Errioren gora datozen izokiak harapatzen dituzte zenbat sartzen diren jakiteko. Kontatu eta

askatu egiten dituzte. Iaz 60 harrapatu zituzten, aspaldiko gehiena. Izokia arrantzatzea galerazia dago eta horrelaxe segiko du behar adina ugaritu artean. □

Saharako haurrak etxean hartzeko asteartea aurretik Biteritik pasa

UDAN Saharako ume koadrila bat etortzen da Hernanira. Etxean umeak dituzten familiek hartzen dituzte 8-12 urteko gaztetxo hauek etxean, oporrak hemengo erara pasa ditzaten. Aurtengo udara Saharako gaztetxo hauekin pasa nahi dutenek datorren asteartea baino lehen pasa beharko dute Biteritik izena ematera. □

■ BOLA

Aian, gaur, Erregularitatea

Erregularitate txapelketako hirugarren tirada da gaur, Aian. Hernaniarrak sailkapenean ondo dijoaz. Aurreko tiradan Burugainek 48 brila bota eta hirugarren egin zuen, aurrenekoak 49 bota zituen. Arrospide eta Zapiain, eta A. Minerrek ere 48na bota zituzten. Sailkapenean, Joxe Ugalde dijoa hernaniarretan ondoena: hirugarren, 91 brilarekin, aurrenekoak baino 5 gutxiago. □

AGENDA

◆ ZINEA

Jack Amazonaseko erregea
17:00etan, Biterin.
Bandidos
19:30etan, Biterin.

◆ MUSIKA

Dantzalia Oialumen
20:00 etan TRAKETS

ZERBITZUAK

☎ TELEFONOAK

► Taxiak: 943 550093
► Udaltzaingoa: 943 333288
► DYA: 943 464622
► Autobusak: 943 556662
► Anbulatorioa: 943 557750
► Jokalari anonimoak 943 331103

☎ FARMAZIAK

► Egunez: Aizpuru
Latsunbe Berri 11
☎ 943 336077
► Gaez: Diaz
Andoain. Nagusia 19
☎ 943 592057

IRAGARKI MERKEAK

Klase partikularrak ematen ditut. DBH arte asignatura guztiak. Interesatuak deitu: 636 170877 Itzalai.

Etxea daukat salgai Latsunbe Berrin. 3 logela, egongela, 2 komun, sukaldia, jardina eta terraza. Prezioa negoziatzeko. 943 550581 - 943 555629

AMEGAR, C. B.

ETXE TRESNAK

SUKALDE ALTZARIAK
HORMA ARMARIOAK
Neurrira egiten ditugu.
Izpizua 27

ELEKTROGAILUAK -TB -
BIDEOAK - HI-FI - OPARIAK
Txirrita kalea 15

Tel 943 551125-Faxa 943 551603
HERNANI (Gipuzkoa)

JUBILATU ETXEKO JATETXEA

Atzieta 16 (Goiz Eguzki) -943 553204



ASTEKO MENUA
Jubilatuak 5 euro
Besteak 6,6 euro

IGANDETAN
Jubilatuak 6,6 euro
Besteak 7,8 euro



ZAPA KALEA 8, Tel. 943.331506

ADARRAGA

Konfitegia
Pasteldegia

Urbieta Etorbidea 7
☎ 943 55 09 10

